

Prentsa oharra

Nota de prensa



Udalak Espainiako Gobernuari eskatu dio Haizearen Orraziaren, Tenisaren eta La Perlaren emakiden luzapenak onartzeko

Egun emakidak iraungita daude, eta ez dago luzapenik aurreikusita

Donostiako Udalak bidezko ekintzak hartuko ditu Espainiako Gobernuak Kostaldean Zuzendaritzari eskatzeko Haizearen Orrazia, Ondarretako Tenisa eta La Perlaren emakiden luzapenak onar ditzan.

Eneko Goia alkateak adierazi duenez, Udalak "hiriaren interesak defendatzeko beharrezkoak diren ekintza legalak abiaraziko ditu. Egun, hirian funtsezkoak diren instalazioen kontzesioak - hala nola Tenisa, Perla eta Haizearen Orrazia bezalako ikono artistiko bat - iraungita eta luzapenik aurreikusi gabe daude".

Horrenbestez, bi errekurso jarriko dira Auzitegi Nazionalako Administrazioarekiko Auzien Salan, eremu horiek okupatu eta aprobetxatzeko emakidaren ezohiko luzapenaren eskaera ustez ezetsi izanaren aurka.

Goiak nabarmendu duenez, Udalak behar diren neurriak hartuko ditu, "lehenik eta behin, Auzitegi Nazionalaren aurrean eta, beharrezkoa bada, Auzitegi Gorenaren aurrean. Amaieraraino joango gara Donostiako ondare historiko eta kulturalaren defentsan".

Kostaldeen Legea

1919tik, Udalak Ondarretako hondartzan 17.800 m² okupatzeko emakidaren titularra da, eta bertan daude Teniseko kirol instalazioak eta Haizearen Orraziaren eskultura-multzoaren plaza. Era berean, 1908az geroztik, Balneario Sozietateak Kontxako pasealekuko bainuetxea eta Kontxako zabalgunea eraikitzeke emakidaren titularra da. Emakiden indarraldia 2018an amaitzen zen.

2013an, horrelako emakiden luzapenak eskatzea ahalbidetzen zuen lege bat onartu zen, eta, hortaz, Udalak biak luzatzeko eskatu zuen 2017an. 2020an, Trantsizio Ekologikoko Ministerioak entzuteko izapidea eman zien Udalari eta Balneario Sozietateari, luzapenerako hasitako espedienteetan, eta Kostaldeetako Zuzendaritza Nagusiaren txostena helarazi zuen, luzapenari ezezkoa eman behar zitzaiola aurreratuz, instalazioetan garatzen diren erabilerak Kostalden Legearen aurkakoak izango liritekeelako.

Horiek horrela, Udalak eta Balneario Sozietateak alegazioak aurkeztu zituzten, baina aitzitik, egun, Kostaldeetako Zuzendaritzak ez du berriazko ebazpenik eman, eta, beraz, administrazio legerian xedatutakoaren arabera, luzapen eskaera ezetsi egin dela ulertu behar da.

Instalazioak arriskuan

Horrenbestez, Goiak honakoa azaldu du: "Espainiako Gobernuak ez baditu luzapenak baimentzen, instalazio horiek arriskuan daude. Legez, ez dago ziurtasunik edo segurtasunik

Prentsa oharra

Nota de prensa



leheneratu ezin direnik. Eta horrek esan nahiko luke, muturreko kasu batean, itxi egin beharko lirakekeela, baita eraitsi ere".

Alkateak dei egin die "Espainiako Gobernuari, dagokion Ministerioari eta Kostaldeetako Zuzendaritzari gai hau azkar konpontzeko", eta honakoa gaineratu du: "Ez dut une batez pentsatu nahi, eta ez nuke ulertuko, Espainiako Gobernuak, Kostaldeen Zuzendaritzaren bitartez, La Perla, Tenisa edo Haizearen Orrazia ixtera behartuko bagintu".

Haizearen Orraziaren obrak

Ekintza horiekin batera, Tokiko Gobernu Batzarrak onartu egin du Kostaldeetako Zuzendaritzari eskatzea Haizearen Orraziaren monumentu multzoak okupatzen duen kontzesio eremua independizatzea. Hau da, Haizearen Orraziaren eremua modu indibidualizatuan tratatzeko eskatu du Tokiko Gobernu Batzarrak.

Eskaera honen jatorria Kostaldeen Zuzendaritza Nagusiak berak emandako erantzun batean dago. Izan ere, plaza eta eskultura multzoa osorik birgaitzeko proiektua gauzatzeko baimena izateko, Kostaldeen Zuzendaritzak Udalari eskatu dio monumentu multzoarentzako emakida independentea eskatzeko.

Udalak aspalditik prestatua du Haizearen Orrazia birgaitzeko proiektu integrala, Chillida eta Peña Ganchegui familiekin adostuta. Birgaitzea egiteko arrazoi nagusia segurtasuna da, eta bertan, magalaren egonkortzea aurreikusten da, izan ere, hainbatetan harriak erori izan dira.

Horri esker, bisitariak mendi-magalera ez hurbiltzeko jarri zen behin behineko horma kendu ahal izango da. Horren harian Goiak honakoa azpimarratu du: "Ikuspegi estetikitik eta obra artistikoarekiko errespetutik, uste dugu behin behineko horma hori kendu egin behar dela".

Era berean, Haizearen Orrazian zaharkituta geratu diren zati batzuk berritu behar dira, baita kaltetuta dauden beste batzuk ere; baina aitzitik, alkateak adierazi duenez, "Kostaldetako Zuzendaritzak ez du birgaitze obrari ekiteko baimenik eman, eta emakida independentea egiteko eskatu du. Horrek guztiak denbora eramango du. Orain Zuzendaritzak denbora beharko du erantzuteko, eta hori guztia dela-eta aurreikusitako lanak luzatzen eta atzeratzen ari dira".

Gainera, 2024an Chillida Urtea izango da, eskultore donostiarra jaio zela ehun urte beteko baitira, eta hiriak hainbat ekitaldi egingo ditu artista unibertsala gogoratzeko. "Chillida Urtean Haizearen Orraziak bere birgaitze integraleko obra amaituta izatea gustatuko litzaiguke, bere obrarik ikonikoenetako bat baita", azpimarratu du alkateak.

Donostia, 2023ko irailaren 12a